

# Herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzeko dekretu baterako proposamena ”



EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN  
**KONTSEILUA**  
[www.kontseilua.eu](http://www.kontseilua.eu)



[www.twitter.com/kontseilua](https://twitter.com/kontseilua)



[www.facebook.com/EuskararenKontseilua](https://www.facebook.com/EuskararenKontseilua)



# AUR KI BI DE A

|   |    |
|---|----|
| • ATARIKOA  | 2  |
| • GOGOETA EGUNGO SISTEMAZ: TRESNA BERRIEN BEHARRAZ                | 4  |
| • 86/1997 DEKRETUA  | 6  |
| • PROPOSAMENA EGITEKO BALIATUTAKO OINARRIAK                       | 8  |
| • PROPOSAMENA: EUSKARAZ JARDUNGO DUEN ADMINISTRAZIOA              | 10 |
| Ezaugarriak   | 11 |
| Eragin-esparrua   | 12 |
| Epeak   | 12 |
| Administrazioko atal elebidun eta euskarazkoak                    | 12 |
| Hizkuntza-eskakizunak   | 13 |
| Langileen euskalduntzea - Trebakuntza jarraitua                   | 14 |
| Derrigortasun-data  | 14 |
| Salbuesteak   | 15 |
| Plangintzaldirako gida-lerroak                                    | 15 |
| Zerbitzu-hizkuntza  |    |
| Lan-hizkuntza   |    |
| Euskararen erabilera normalizatzeko planak                        | 16 |
| Administrazio-kontratuetako hizkuntza-baldintzei buruzko erabakia | 16 |
| Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa                                 | 16 |

A  
TA  
RI  
KO  
A

# A T A R I K O A

EAEko Administrazioa euskalduntzeko bidean, azken hiru hamarkadetan hobetu egin da euskara era batera edo bestera ezagutzen duten langileen kopurua, abian jarri diren hizkuntza-politiken eraginez. Jaurlaritzaren arabera, "Administrazioko langile gehienak prestatuta daude, neurri batean edo bestean, euskaraz lan egiteko". Aldaketa horren eragileetako bat izan da 1997ko apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena.

Edonola, aurrerabide horrek ez ditu ekarri, hein berean, herritarren hizkuntza-eskubideen bermea, ezta euskaraz jarduten duen administrazio bat ere. Ia lau hamarkada joan dira euskara hizkuntza ofizial izendatu zenetik, eta 1982an jaiotako herritarrak, egun, zailtasunak ditu zerbitzu publikoak euskaraz eskuratzeko eta, oro har, bere bizimodua euskaraz eratzeko. Euskara hizkuntza ofiziala izanik ere, bere ezarpenean ofizialtasuna desorekatua da, gaztelaniaren mesedetan, eta Administrazioak ez ditu bermatzen euskaldunen hizkuntza-eskubideak.

Administrazioaren euskalduntzea eta gizartearen euskalduntzea elkarren eragile izan dira, batak bestea erraztu du, baina ez nahiko genukeen adina, ziurrenik. Zilegia da pentsatzea aukera batzuk galdu ditugula bidean, oraindik ez baita lortu euskaraz jarduten duen Administrazio bat, eta tresna eragingarriagoa izan zitekeela gizartea euskalduntzeko trazio-lanean.

Milaka dira euskara ikasi duten herritarrak, euskaraz hezi direnak eta euskaraz bizitzea erabaki dutenak, eta Administrazioak bat etorri behar du errealitate horrekin. Horregatik, ez da nahikoa hitz egitea Administrazioan euskararen erabilera normalizatzeaz, ezin bizi gaitzke etengabeko arian-arian batean edota progresibotasunaren kiribilean. Herritarrak ezin gara konformatu euskararen normalizazioan dihardugula jakitearekin, harago joateko garaia heldu da, beste estadio batera igarotzeko garaia da: Administrazio euskalduna lortzeko garaia da, eta helburu horri epea jarri behar zaio.

Horregatik, urteotan egindako ibilbidea eta egiteko dagoena kontuan izanik, Administrazioaren euskalduntzea arautuko duen dekretu berrirako irizpide batzuk proposatu nahi ditu Euskararen Gizarte Erakundeek Kontseiluak, herritarrok administrazioaren eskutik jasotzen ditugun zerbitzuak normaltasunez euskaraz izatea bermatzeaz gain, administrazio euskaldun bat lortzeko, epe labur-ertain batean.

GO  
GO  
E  
TA

# GO GO E TA

## **EGUNGO SISTEMAZ:**

*Tresna berrien beharraz*

Aitortu behar dugu proposamena egin bitartean egiturazko kezka sortu zela Kontseiluan. Finean, egun indarrean dagoen sistema egokiena al da administrazio publikoko langileen kontratazioari dagokionez? Alegia, funtzio publikoaren egungo egiturak ahalbidetu ahal du euskalduntze-prozesua amaieraraino eraman ahal izatea? Ez ote da sistema hori desegokia euskararen normalizazio orokorrerako?

Zalantzarik gabe, Kontseiluak uste du interesgarria litzatekeela sistemaren beraren goitik beherako azterketa egitea, hizkuntzaren normalizazioari dagokionez egokiena izan zitekeena definitzeko. Alegia, askotan interesgarria izaten da jokaldia aldatzeaz gain, joko-zelaia bera ere aldatzea.

Egun, administrazio publikoko joko-zelaiaren ardatz nagusietakoa LPZ - Lanpostuen Zerrenda da. Funtzio Publikorako Neurrien Legearen arabera LPZ zerbitzuen beharren arabera langileria antolatzeko trena teknikoa da. Horretaz gain, lanpostu bakoitza burutzeko baldintzak zehazten dira, bai eta soldata-ezaugarriak ere.

LPZk beraz dokumentu bakarrean lanpostu guztien ezaugarri esanguratsuenak biltzen ditu, eta horrela ordenatuta geratzen dira, eta lagungarria izango da ondorengo funtzionario-hornikuntzak antolatzeko.

Hortaz, LPZn lanpostuen zenbakia, deskribapena, kategoria, oinarritzko soldata, soldata osagarriak... jasoko dira. Horrekin batera, eta EAERI dagokionez, lanpostu horri dagokion hizkuntza-eskakizuna agertuko da, bai eta hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko iraugitze-data ere.

Gauzak horrela, nahitaezkoa da bi elementu bereiztea. Batetik, lanpostu bati esleitu zaion hizkuntza-eskakizuna; eta, bestetik, hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko derrigortasun data. Eta, akaso, eremu horretan dagoen zurruntasuna da egungo sistemaren arazoetako bat. Finean, langile batek lanpostua eskuratutakoan hizkuntza-eskakizuna iraugita egon ezean, ez du inoiz hizkuntza-eskakizuna egiaztatu behar izango, datak iraugi arren.

Hartara, horrek esan nahi du oso estatikoa dela LPZn sistema. Ikusi bezala, behin lanpostua lortuta datak iraugitzen badu ere langileak ez du egiaztatzeko beharrik izango. Horrek, zalantzarik gabe, departamentuak euskalduntzea zailtzen du, baldin eta departamentu zehatz batek euskaraz lan egin nahi izanez gero.

Horrexegatik, iruditzen zaigu gogoeta sakona egin beharra dagoela funtzio publikora sartzeko sistemaz, eta eredu berri bat proposatu behar dela, erdigunean zerbitzua eta ez lanpostua jarriko duena, eta lanbiderako gaitasunak euskaraz aztertuz, ekosistema euskalduna eraikitzea ahalbidetuko duena.

DE  
KRE  
TU  
A

86/1997



# DE KRE TU A

86/1997

Hogeita bat urte joan dira 1997ko apirilaren 17an EHAAn Euskal Autonomia Elkarteko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautuko duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua onartu zenetik.

Zalantzarik ez dago Dekretu hark euskararen normalizazio-prozesuan oinarria jarri zuela mahai gainean. Halere, egun Dekretu hori berrikusteko eta berregiteko tenorea dela uste du Kontseiluak.

Orduko Dekretuak, besteak beste, honako elementu hauek jaso zituen:

- Xedapen orokorrak
- Lanpostuei dagozkien hizkuntza-eskakizunak
- Administrazio-atalen sailkapena
- Helburuen eskala
- Normalizazio-planek jaso beharrekoa
- Derrigortasun-daten zehaztea
- Hizkuntza-eskakizunen erregistroa
- Baliokidetasunak eta salbuespen-arauak

Egia da, bai, Kontseiluaren proposamena egiteko neurri handi batean aurreko Dekretuak agertu zituen elementuak kontuan hartu direla eta horien berrikuntza planteatzen dugula. Halere, azpimarratu nahiko genuke balizko dekretu berri bati begira erantsi beharreko elementu berriak ere proposatzen ditugula, are integralagoa izan dadin.

OI  
NA  
RRI  
AK

# OI NA RRI AK

## PROPOSAMENA EGITEKO

Azken urteotan egin bezala, oraingoan ere Kontseiluak proposamen politikoa egiteko Europan inoizko adostasun sozial handien duen proposamen politikoa izan dugu oinarri: Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa (2016).

Hogeita hamar hizkuntza gutxituren alde lan egiten duten ehundik gora eragilek adostutako dokumentu zehatza da Protokoloa, eta hizkuntza-eskubideak bermatze-aldera 185 neurri biltzen ditu.

Horrela, Protokoloaren bigarren eremua osatzen duen **Administrazio publikoak eta instituzioak** delako atalean jasotako neurriak izan dira oinarri gure proposamena egiteko, hain zuzen ere, herritarrei zerbitzu guztiak hizkuntza gutxituan ematen zaizkiela bermatzeko azpi-atalean bildutakoak.

Gainera, gogoratu behar dugu, 2017an zehar Euskal Herriko hamarnaka eragilerekin Protokoloaren Euskal Herriko Garapena jorratu duela Kontseiluak, eta bertan neurri bakoitza euskararen betaurrekoetatik ulertzeko zehaztapenak eta neurria betetzeko bideak proposatzen dira. Hartara, dokumentu hori ere Kontseiluaren proposamena egiteko arras baliagarria izan da.

Proposamen honen oinarrian daude "Hizkuntza-politika berri eraginkorra" (2009) eta "EAEko hizkuntza-politika garatzeko hamahiru proposamen" (2016) dokumentuak ere.

PRO  
PO  
SA  
ME  
NA

## A. EZAUGARRIAK

Herritarrok administrazioaren eskutik jasotzen ditugun zerbitzuak normaltasunez euskaraz izateko eta euskaraz jardungo duen administrazio euskaldun bat lortzeko, Administrazioaren euskalduntzea eta bere jarduera linguistikoa arautuko dituen dekretu berriak honako ezaugarriak izan behar ditu:

- **Hizkuntza-eskubideen bermeak** gidatuko du erakundeen jarduera, ziurtatuz herritarren hizkuntza-hautua errespetatzea, administrazioarekin dituzten harreman guztietan.

- Gizartean euskararen **erabilerearen normalizazioa** eramango gaituen hizkuntza-politika aurreragari baten adierazle izan behar du, eta euskararen garapen soziolinguistikoak bizi izan duen aurrerabidearen logika berean joan behar du Dekretuak ere. Horregatik, **erakundeek euskara lehenetsiko dute** beren jardueran:

- Bi hizkuntza ofizialen arteko berdintasuna ekarriko duen egoera lortzeko, herritarren hizkuntza-aukeraren berdintasuna bermatuz eta erabilera sozialean mugakizun handienak dituen hizkuntzaren alde jokabide positiboko neurriak garatuz.

- Erakundeek ereduak jokabideak izateko, erraztuz erabiltzaileei eta langile euskaldunei euskararen erabilera, inolako eragozpenik eragin gabe, eta baita trakzio lana egiteko ere, gizartea euskaraz bizitzera eragiteko erantzukizuna hartuz.

- **Prebentzioaren** ikuspegia barneratuko da erakundeen lan-moldeetan, euskarazko jarduera osasuntsu dagoen egoeretan atzerapausoak saihesteko, eta euskararen garapen osoa eta berreuskalduntzea lortzeko. Erakundearen politikak eta neurriak ezarri aurretik, jarduerak diseinatzen diren unean bertan, hizkuntzaren kudeaketaren aurreikuspena eta eragin linguistikoaren ebaluazioa eginez, ziurtatu ahal izango da egitasmoek ez dutela euskararen aldekoa den egoerarik kaltetuko eta herritarren hizkuntza-eskubideak bermatuko dituztela.

- **Eraginkortasunaren** irizpidea barneratuko du, horretarako zehaztaraziz erakundeei, epeetan oinarritutako plangintza, etengabeko hobekuntzarako eta ebaluaziorako tresnak, jarraipenerako protokoloak eta egitura betearazleak.

## B. ERAGIN ESPARRUA

- Euskararen normalizazioak **zeharkako izaera du**. Horregatik, politika guztietan (ogasunean, hirigintzan, industrian, garraioan, merkataritzan, aisian,...) ezarri behar da Dekretuak barneratzen duen hizkuntza-politika eta erakundeetako gobernu-organo gorenak hartu behar du irizpide hauen ardura, erakundearen sail guztiek bere egin eta ezar ditzaten.

- Era berean, Administrazioa osatzen duten **erakunde guztietan** eragin behar du Dekretuak, inolako salbuespenik gabe. Alde horretatik, bereziki azpimarratu nahi ditugu Osasun saila, Herrizaingoa eta Justizia, eta baita orain arte Dekretuaren eraginpetik at zeuden beste erakunde publiko guztiak ere, herritarren hizkuntza-eskubideen bermea baitago jokoan. Hezkuntza sailak ezaugarri bereziak dituela kontuan hartuta, dekretu berezitua izango du, eta hori aldatzeko urratsak gaurdanik eman beharra proposatzen dugu.

- Halaber Dekretuaren eragin-esparrua honako hauetan ere egongo da: erakunde autonomoetan,

zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan, sozietate publikoetan, sektore publikoko fundazioetan eta partzuergoetan.

- Horrekin batera, eragin-esparruaren barruan egongo dira partaidetza publiko gehiengoduna duten eta ezein administratziotako sektore publikoan sartuta ez dauden erakundeak: merkataritzako sozietateak, fundazioak, partzuergoak edota irabazi asmorik gabeko beste erakunde batzuk.
- Alde horretatik, Dekretuak jasotzen dituen irizpideak **lostesleak** izango dira, **bete beharrekoak**.

### C. EPEAK

- Administrazioek euskaraz lan egiteko eta zerbitzua eskaintzeko **betebeharra noiz beteko** duten zehaztuko da. Administrazioa euskalduntzeko epeak ezarriko dira, bai eta epe bakoitzari dagozkion helburuak ere.
- Alde horretatik, gaur egungo **langile guztiak euskalduntzeko** epea zehaztuko du erakunde bakoitzak.

### D. ADMINISTRAZIOKO ATAL ELEBIDUN ETA EUSKARAZKOAK

- Gizartean eta administrazioan egin den euskalduntzeko ahalegina kontuan izanik, dagoeneko Administrazio osoak izan behar du, gutxienez, elebidun izendapena.
- Alde horretatik, **hizkuntza-eskakizuna** lanpostuari bakarrik jartzen dion eredutik **sailen jarduerari** ere ezarriko dion eredurara igaro behar du administrazioak, horretara moldatuz langileen euskalduntzea eta baliabide materialak.
- **Euskarazko atalaren izendapena** tresna interesgarria da erakundeen euskalduntzea proaktiboki eragiteko. Horretarako, VI. plangintzaldiko baldintzak berrikusi eta traktoreagoa izateko ezaugarriak gehitzeaz batera, Dekretu berrian jaso beharko lirateke:
  - o Langileen %75ek lanpostuko hizkuntza-eskakizuna egiaztatua izatea eta arduradun teknikoak hirugarren hizkuntza-eskakizuna egiaztatua izatea.
  - o Administrazio-atal guztiek **jarraibideak zehaztea**, euskarazko jarduera arautzeko: lehen hitza, identifikazioa, laneko hizkuntza, prestakuntza, euskarri informatikoak,...
- Era berean, jendaurreko eta gizarte mailako atalen arteko banaketa eguneratu behar da, biek dute eta zeregin nagusi administratuarekiko harremana. Horrela, **zerbitzu-eginkizuneko kategoria** bakarra izendatu behar da. Gainera, beren jarduera bi hizkuntzetan izango denez, atal hauetako lanpostu guztiek izango dute hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko derrigortasun-data. Horrela, Dekretuak zehaztuko du, EAEko erakunde publiko guztietan, atal elebidun edo euskarazko atal gisa izendatuko direla zerbitzu-eginkizuneko atalak (jendaurreko eta gizarte izaerakoak).

## E. HIZKUNTZA-ESKAKIZUNAK

- Langile berriek euskara **ezagutzeko betebeharra** ezarriko da. Kontratazio berri guztietan zerbitzuari edo funtzio komunikatiboari (lanpostuari) dagokion euskararen ezagutza ezinbestekoa izango da.
- Horrekin batera, urrats berri bat egin beharra iruditzen zaigu, hain zuzen ere, hautagaiek lanpostuari dagokion **sarrera-froga euskaraz** egingo dute, finean, horixe baita lanpostu horretarako eskatzen diren gaitasunak euskaraz egin ditzakeela egiaztatzeko modurik fidagarriena.
- Alde horretatik, esaterako, Euskara Maila Egiaztatzetik Salbuesteko **47/2012 Dekretuaren baldintzak** betetzen dituzten hautagaiek ere Administrazioan sartzeko azterketa euskaraz egingo dute, nahitaez.
- Langile berri guztiei euskara ezagutzeko beharra ezartzen den unetik aurrera, euskara **merezimendu** gisa kontuan hartu ahalko da, soilik, eskatutako gaitasuna baino handiagoa dutenen kasuan.
- **Hizkuntza-eskakizun mistoak** ezarriko dira, ahozkoan maila ertain-handia behar duten lanpostuetan, baina idatzian horrelako maila behar ez dutenetan, euskarazko jarduera indartzera begira. Herritarrekin harreman zuzena duten langileek euskaraz jarduteko **gutxieneko gaitasuna** (2. hizkuntza-eskakizuna) izango dutela ziurtatuko da. 3. hizkuntza-eskakizuna, gutxienez, ezarriko da idatzizko ekoizpena ezinbestekoa den lanpostuetan. Langile kualifikatuei 4. hizkuntza-eskakizuna eskatuko zaie.
- Hizkuntza-gaitasun **agiriaren iraungitzea** ezarriko zaio, bere jarduera euskaraz garatzen ez duen langileari.
- Horrekin batera, **garapen profesionala euskararekin** lotzeko erabakiari eutsiko zaio, euskalduntzea eragingarriago izateko. Hizkuntza-eskakizun jaso langileen promoziorako betekizun bat izan da. Barne-promozioko lehiaketetan, euskaraz egingo dira azterketak.

## F. LANGILEEN EUSKALDUNTZEA - TREBAKUNTZA JARRAITUA

- Langile guztien euskalduntzea helburu duen eta epe zehatzak dituen **programa** zehaztu behar du erakunde bakoitzak (IRALE eredu), eta berau garatzeko adina diru baliabide esleitu beharko du.
- Ezarritako maila baino gaitasun altuagoa lortu nahi duten langileek ikastaroak egiteko eskubidea izango dute.
- Euskalduntzeko programetan, eskola orduz gain, **bestelako interbentzio** batzuk ere aurreikusi beharko dira; hala nola, lan jakinen zuzenketak, motibazio-saioak, ko-idazketa saioak, zalantzak argitzeko bitartekoak,...
- Erakundeetan euskarazko jarduera oztopatu ez dezaten, euskaraz gaituta ez dauden arduradun politikoek euskalduntze-ikastaroak jaso beharko dituzte, B2 maila eskuratzeko, gutxienez.

- Hirugarren edota laugarren hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta duten langileek euskaraz egingo dute edozein gairen inguruko trebakuntza-jarraitua.

## G. DERRIGORTASUN-DATA

- Erretiroagatik hutsik geratu edo geratzekoak diren lanpostuei **iraungitako derrigortasun-datak** jarriko zaizkie. Horren bidez, bermatu da postu horiek bete dituzten langileek lanerako hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta izatea.
- Behin hizkuntza-eskakizunaren derrigortasunaren-data ezarrita, ezin izango da atzeratu (beranduagoko data batekin ordezkatu). Aldiz, aurreratu ahal izango da.
- Baztertzekoa da egungo dekretuaren 28. artikulua. **Ezinezkoa** izango du langileak lanpostua eskuratzea, hizkuntza-eskakizuna betetzea derrigorrezkoa izanik, dagokion gaitasuna hasiera-hasieratik egiaztatzen ez badu.
- Derrigortasun-data jadanik iraungita izanik, lanean diharduten langileen kasuan, VI. plangintzaldia izango dute beren gaitasuna egiaztatzeko **azken data**.
- Langileak derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna egiaztatzen ez badu, **lanpostutik kentzeko espedienteak** hasiko du erakundeak, erremozioa edo lanpostu aldaketa ezarriz.
- Hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko derrigortasuna duten lanpostuetan **euskarazko jarduera** (idatzizko ekoizpena eta ahozko erabilera) ezarriko da, eta horrela jasoko da lanpostu bakoitzaren monografian.

## H. SALBUESTEAK

- Aztertu behar da zein datatik aurrera ez den onartuko salbuesteko aukera, baina hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko salbuespena bertan behera utzi behar da.
- Era berean, premiazkoa da Euskara Maila Egiaztatetik Salbuesteko 47/2012 Dekretua bertan behera uztea. Egungo egoera soziolinguistikoa, ezin da aski izan ikasketak euskaraz eginak izatea, euskara maila egiaztatetik salbuesteko. Horrexegatik ere, administrazioan sartzeko azterketa euskaraz egitea nahitaezkoa izan behar du.

## I. PLANGINTZALDIRAKO GIDA-LERROAK

- Plangintzaldiarako ematen diren gida-lerroen eta irizpideen **ezarpena behartu** behar da. Horretarako, zer erantzukizun-mota ezarriko den zehaztuko da, bai lan arloan bai eta politikoa ere.

### I.1. Zerbitzu-hizkuntza

- Dekretuak jasoko du herritarren hizkuntza-aukera **beti eta ooren gainetik** errespetatuko dela. Espresuki jasoko da ez dela helburu hori malgutzeko modurik izango.



- Era berean, hizkuntza-eskubideen urraketaren aurrean **erantzuleak** izendatuko dira, bai lan arloan bai eta politikoan ere, eta ondorio zigortzaileak zehaztuko dira.

- Euskaraz lan egingo duten eta zerbitzua eskainiko duten **euskarazko zirkuituak** zehaztuko dira, eta horien antolakuntza nola egingo den zehaztuko da.

- Arlokako jarraibide hauek honela hobetu beharko dira:
  - o **Jendaurreko ekitaldiak** gutxienez euskaraz izango dira, bermatuz euskaraz gaituta ez dauden herritarren hizkuntza-eskubideak.
  - o **Idatzizko harremanak** herritarrekin. Herritarrek euskaraz bidalitako testuei, kasu guztietan, euskaraz erantzungo diete erakundeek. Gaztelaniaz abiatutako harremanetan, bi hizkuntzetan erantzungo da.

## I.2. Lan-hizkuntza

- Dekretu berriak jaso behar du langile euskaldunek **euskaraz lan egiteko duten eskubidea**. Neurri horrek ez dezan ahalbidetu gaztelaniazko jarduerarik, normalizazio-plangintzaren helburuetara zedarrituko da.

- Euskarako jarduera zehazteko proposatu diren irizpide hauek honela hobetu behar dira:
  - o **Idatzizko barne komunikazioa**. Hirugarren edo laugarren hizkuntza-eskakizuna egiaztatua duten langileek euskaraz erantzungo diote lanari.

- o **Ahozko barne-komunikazioa**. Zerbitzuek antolatzen dituzten bileretan, hizkuntza nola kudeatuko den aldeaz aurretik zehaztuko da, euskaraz egitea hobetsiz. Jakina, bilerarako euskarriak eta dokumentazioa euskaraz izatea hobetsiko da. Areago, bileran parte hartuko duten kide guztiak euskaldunak direnean, euskaraz egingo da bilera.

- o **Barruko komunikazioetan** euskaraz aritzea errazteko, erakundeko langileak identifikatzeko erabiltzen diren informazio-euskarrietan (telefonoen zerrenda, langileen direktorioa, eta abar), langileak zein hizkuntzatan gaituta dauden adierazi behar da.

- o Erakundeak antolatzen dituen **ekitaldi publiko edo hedabideen aurrekoak** euskaraz izango dira, oro har. Bitarteko teknikoak jarriko dira hedabideek informazioa nahi duten hizkuntza ofizialean jaso dezaten.

- o **Kanpo harremanak**. Administrazioen arteko harremana euskaraz izatea adostuko du erakundeak, bere eragin esparruko erakunde ahalik eta gehienekin. Udallerri euskaldunekiko harremana euskaraz izango da, bai ala bai, beti.

## J. EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANAK

- Jaurlaritzak proposatu du adierazleen bidezko ebaluazioa erabiltzea. Bada, **eboluzio hazkorreko helburuak** ezartzeko, erakundeek erakutsi beharko dute plangintzaldiaren hasieran zein den adierazle horien araberako momentuko egoera, nondik abiatzen den erakunde bakoitza.

## K. ADMINISTRAZIO KONTRATUETAKO HIZKUNTZA BALDINTZEI BURUZKO ERABAKIA

- Dekretuak jaso behar du **administrazio-kontratueta hizkuntza-irizpideak** ezarriko direla, herritarren hizkuntza-aukera beti eta ororen gainetik errespetatzeko.

- Era berean, kontratueta hizkuntza-irizpideak ez jartzeagatik gerta daitezkeen hizkuntza-eskubideen urraketen aurrean erantzuleak izendatuko dira, bai lan arloan bai eta politikoan ere, eta ondorio zigortzaileak zehaztuko dira.

## L. ERAGIN LINGUISTIKOAREN EBALUAZIOA

- Dekretuak jasoko du politika publikoetan prebentzio linguistikoaren ikuspegia txertatzeko beharra. Horrela, beren politika publikoen **eragin linguistikoa alde aurretik** ebaluatzeko bitartekoak zehaztu beharra izango dute erakundeek. Eremu honek berariazko araudi-garapena izango du.
- Ebaluazio horren printzipio nagusia izango da euskara osasuntsu dagoen guneeetan eta egoeretan **euskararen erabileraren aurkako eraginik ez** sortzea, eta, sortzekotan, zuzenketa neurri egokiez laguntzea.
- Eragin linguistikoaren **aldez aurreko ebaluazioa** beharko da erakundeek sortutako arau, proiektu, programa, azterketa eta ekimen guztietan, onartu aurretik.
- Alde horretatik, udal legearen garapenean zehaztutako ezaugarrien araberako **udalerrri euskaldunak** bereziki babesteko bideak ezarriko dira duten egoera soziolinguistikoari eusteko.

